

«PSNren asmoa NaBai apurtzea bada, ez du lortuko»

1964, Iruñea. NaBaiko zinegotzia Iruñeko Udalean eta Espainiako Kongresuan diputatua. Esperientzia ezinbestekotzat jotzen du NaBai: “Nafarroan abertzale eta ez abertzaleen artean lan egitea posible da, baita proiektu berri bat aurrera ateratzea ere. Proiektua gauzatzeko arrazoi politikoak eta objektiboak daude” esan digu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Josu Santesteban

Koalizioan izaten diren tentsioak gutxitzeko bitarteko berriak sortu beharra azaldu digu. Zeregin horretan ari dira jo eta ke. Iruñean hitz egin dugu eta politikan buru-belarri ari dela jabetu ahal izan gara. Elkarriketa erlojuaren kontra egin genuen, denbora errekorrak apurtuz. Emaiza jarraian paratu dugu: emaitza ona gure aburuan.

Zer iruditu zaizu Raxoik inbestidura saioan Zapaterorekiko hartu zuen jarrera?

Raxoiren inbestidurako diskurtsoa oso epela izan da eta ziur aski elkarrekiko keinu bat baino gehiago ikusiko dugu aurki. NaBai Estatuko arazoetan Zapatero laguntzeko prest dago, baina PSOEek PPrekin Estatu itunik bilatzen badu guk kontra egingo dugu.

Emaiguzu Espainiako Gobernu berriari buruzko zure ikuspegia.

Egituraketa berria da. Aldaketa asko ez dut ulertzen ez ontzat jotzen. Bi hauek azpimarratuko nituzke: Lan eta Immigrazio Ministerioa izendatu izana. Gizarte demokratiko batean immigrazio eta enplegu gaiak ministerio berean lotzea erokeria da. Nekazaritza eta Ingurumen Ministerioa: Ingurumen ministerioaren beharra dugu eta inork ez du hori kuestionatu. Gaiak bereiziak zeuden eta Zapaterok batu ditu. Zapateroren diskurtsoaren ardatzetako bat Kioto izan zen, bada, Kiotori buruz esana erretorika dela ulertu behar dugu, ingurumen gaia ministerio bateko bigarren atala izatera pasa da-eta.

“ETAren aurkako borroka alderdi abertzaleek gidatu behar dugu” esan zenuen Zapateroren inbestidurako saio batean. Sakondu ideia horretan, arren.

Azkenaldion berriz ere zer-nolako estrategia partidistetan aritu garen ikusi besterik ez dago. Kondenaren inguruan, adibidez, abertzaleok politika egiteko gai izan behar dugu, eta etikoki sakonean aritzeko ere interes partidistetan erori gabe. Inbestidura saioan argi eta garbi esan nuen: alderdi sozialistak zein popularrak kondena erabiltzen baldin badute Alderdien Legea aurrera eramateko, ez gaude ados. Halaber, gure udaletan kondena ez badago ez da ahalmenik izango instituzio horiek behar bezala kudeatzeko. Hori da abertzaleon, eta sozialista zein popularren arteko ezberdin-



Uxue
Barkos

NAFARROA BAIKO BURU AGERIKOENA

“Kutxako auziak inflexio puntua izan behar du NaBain”

“NaBain tentsioak daude eta izango dira, baina momentuz gauzak ondo doaz” esan zenidan duela lau urte.

Bai. Eta halatsu gaude. Baina normala da. Azken urte hau oso gogorra izan da, egoera oso bereziak kudeatu behar izan ditugu. PSNk bitarteko guztiak UPNren esku jartzen dituela ikustea benetan gogorra da, gizarte aurrerazalea nahi dutenentzat gogorra da oro har. Beren politika justifikatzeko hitz gogorak darabiltzate abertzaleon kontra. Bien bitartean, udal eta foru hauteskundeak izan dira, ondoren orokorrak, horretarako gure egiturak moldatu behar izan ditugu. Orain lau urte NaBaiko zinegotzirik ez zegoen, uneon pila gara. Nafarroako Legebiltzarrean eta Iruñeko Udalean bigarren indarra gara, ez da erraza. Baina ez naiz batere ezkor. Hautesleek esan digute koalizio hau behar dela Nafarroan. Ez bakarrik hori, Madrilen ere, egoera zail eta larri batean, ordezkari izaten segitzen du NaBaik.

Kutxako aferak tentsioak berretsi dituzte edonola ere.

Kutxako auzia nolabaiteko tupust bat izan da. Inflexio puntua izan behar du, nahiz eta alderdi bakoitzaren interesak oso legitimoak diren eta horrela izan behar duten gainera. NaBaiko interesak eta alderdienak paraleloak izatea normala da. Azpimarratu behar dena da, batetik NaBai eratzea eta zutik mantentzea lortu dugula, eta bestetik gizartearen oniritzia jaso dugula. Gure eginbeharra herritarren konfiantza eta sostengua aurrera eramatea da.

Tentsioek nola eragiten dute zure baitan?

Proiektuaren sentsibiltate guztien biltzaile eta bozeramale izaten saiatzen naiz. NaBaiko bizitzan eta bere inguruko gertakarietan tentsioak normalak dira. NaBairen esperientzia ederra da halere, eta nire hitz hauek ez dira hutsalak. Ikusten eta sumatzen dut posible dela lau indarren arteko lana gauzatzea eta NaBai bezalako bitartekoa Nafarroan izatea. Hain da beharrezkoa gainera! Balantze hobereana hain indar ezberdinen artean lan egiteko gauza garesti agertzea da. Ahaztu gabe independenteen ekarpena, jende benetan garrantzizkoa. Politikarekin harreman zuzena ez dutenen konpromisoa lortzea proiektu honetan, hori bai benetan dela altxorra.

Espainiako Kongresurako NaBaiko emaitzei buruzko iritzia ezberdinak eman dira ezagutzera. Zein da zurea?

Emaitzak, lasaitasun osoz aztertu ondoren, ez dira batere txarrak izan. Egoera oso zaila izan arren, alderdi abertzale eta euskaltzaleentzako bipartidismoa oso txarra da, baita aniztasunarentzat ere: EB-IU, IPC, ERCren emaitzak lekuko. Nire erreflexioa erraza da agian, baina NaBai da aurreko hauteskunde orokorretan baino boto gehiago atera duen euskal ordezkari bakarra: 1.000 boto gehiago. Ez dira asko, baina botoen %18tik %19ra pasa gara, boto emaile kopurua gehitu arren. Bada beste datu are interesgarriagoa: NaBaik Erriberan 3.000 boto gehiago jaso du. Garrantzizkoa da oso. Adierazgarria da poliki-poliki urratsak ematen ditugula ikustea.

tasuna, handia gainera. Ez nuke esango alderdi bi horietan denek horrela pentsatzen dutenik, baina hainbatek kondena erabiltzen du Alderdien Legea aplikatzeko. Kondenaren utilitarismoa egiten dute eta guk abertzaleok ETArekin aurkako borrokan hori apurtu behar dugu.

Zer adierazten du Zapatero bigarren itzulian presidente izendatu izanak?

Lehenengo eta behin, ez dela akordio bakarra ere lortzeko ausarta izan. Duela lau urteko inbestidura saioan “TRAKEko tropak AEBetatik atera zituen presidentea” deitu genion. Oraingoan akordioa lortzea nahi ez duen edo lortzeko ausarta ez den presidentea da. Orduko Zapateroren eta oraingoaren ezberdintasun nabarmena da. Politikarako ausardia ezak definitzen du Zapatero.

Abstenitu zinen, ez zenion ezezkoa eman, alegia.

NaBairi zaila zaio Espainiako presidente sozialista bati ezetza ematea.

Oraingoan, koherentzia politikoa kontuan hartuta, abstentzio jarrera hartu dugu. Eta ez da batere erraza izan.

Koherentzia kontuak tarteko, PSNren eta UPNren arteko harremana aipatu zenuen inbestidurako saioan. Zer eskatzeko?

Zapaterok argi eta garbi esan dezan Diputatuen Kongresuan, Nafarroako instituzioetan PSNko eta UPNko kideek zer-nolako harremana duten. Orain hilabete batzuk Zapaterok berak esan zuen Kongresuan “PP-UPNren sozioak gara Nafarroan, Nafarroan baino ez”. Guk horri buruzko azalpena eskatu genion eta

“PSOE zein PPko hainbatek kondenaren utilitarismoa egiten dute eta guk abertzaleok ETArekin aurkako borrokan hori apurtu behar dugu”

berak ezeztatu zuen esandakoa. Nafarroan halere PSN eta UPN eskutik ari dira, begi-bistan dago.

UPNren alternatiba PSNrekin gauzatu ez izanak PSOErekin harremanak baldintzatu ditu nolabait.

Kontua ez da ahalegin hark gure harremanak baldintzatzen dituen ala ez, baizik eta zer motako gizartea eraiki nahi dugun guk eta zein den gobernatzen dutenak eraikitzen ari direna. PSNk nahiago du UPNrekin Nafarroan eraikitzen jarraitzea, orain arte bezala, eta guk alternatiba eraikitzen segituko dugu tinko Nafarroako Legebiltzarrean, Madrilgo Kongresuan, baita udaletan ere, oposizioan uneon. Ageri denez Barañaingo Udalean ere oposizioan. Eta PSNren asmoa NaBai apurtzea bada, ez du lortuko.

Zer gertatu da Barañaingo Udalean?

Argi eta garbi dago: PSNk ez ditu bere konpromisoak bete eta nahiago izan du UPNrekin bat egitea.

Honek baldintzatuko ote du Madrilgo Gobernuarekin NaBairen jarrera?

PSNk horrelako jarreararekin segituz gero... baliteke.

Nafarroako Parlamenturako urrututako bidea antzu geratu da ia-ia.

Beren erabakia izan da. NaBaik bere planteamenduei eta helburuei tinko eusten die: Nafarroara aldaketa ekartzea, ezkertiarra eta elkarbizitza bermatuko duena. Guk geure bideari eutsi diogu, berauek horretan gai ote diren erakutsi behar dute. Orain, bihar, zein hiru urte barru, gu prest izango gara.

Bakerako bidean laguntza eskaini diozu Zapaterori, eta PPren eskutik ez aritzeko eskatu. Estatuko alderdi nagusien artean pakto bat izan ezean posible ikusten al duzu bakea?

Ez dut pakto baten beharra ikusten, erantzukizunaren beharra baizik. Oposizioko lehen taldearen erantzukizuna gobernuari laguntzea da, PPK egin ez duena. PPK ETArekin su-etenen kontra eginez are zailago egin zuen ETArekin akordio posiblea. Baina paktua ez da beharrezkoa, ez da inoiz izan, hori ez da egia. Hori politikako sektore batzuen interesa da. Espainiako aldiak aldiko presidentearen erantzukizunetako bat arazo militarra konpontzea da. Arazo militarra ETA eta Espainiako presidentearen artean konpondu beharreko gauza da, arazo politikoa berriz euskaldunon arazoa da, guk geuk konpondu beharrezkoa eta konpondu duguna gainera.

Madrilen diputatu eta Iruñean zinegotzi. Alkate ez izanaren damua?

Batere ez. Udalean dauden ordezkariak ikusita ez zen erraz kudeatzea udal gobernu posible hura. NaBairen zeregina oposizioan dago uneon.

UPNk hamahiru zinegotzi ditu, Yolanda Barcina alkatea barne. NaBaik zortzi, PSNk lau eta ANVk bi. Hamalau *versus* hamahiru. Zer oposizio du alkateak?

PSN ez da oposizio. Barcinak gehien-go osoa dauka, proiektu orokorretarako PSNren sostengua dauka behin eta berriz. Teorian ez, baina praktikan bai. Eta gauza bera Foru Parlamentuan.

ANVko zinegotziekin harremanak zer moduz?

“Politikarako ausardia ezak definitzen du Espainiako presidentea”.

NaBai eta ANVren artean harremanik ez dago, eta une honetan Iruñeko taldearekin haserre nago. Ez dituzte beraien erantzukizunak onartzen.

Esate baterako?

Orain hilabeteko osoko bileran, polita eta esanguratsua, NaBaik Txantreako izen frankistak dituzten kaleko izenen aldaketa proposatu zuen eta PSNk baiezkota eman zuen. ANV abstenitu zen. Beraz, mozioa ez zen aurrera atera. Bakoitza bere erabakia hartzeko libre da. Horraino ondo, baina ANVk gertatuaren bertsio guztiz alderantzizkoa eta interesatua eman zuen gero. Errealitatearen kontrakoa, guztiz bihurria. Politikan ezin duzu erantzukizuna horrela saihestu, esandakoari aurre egin behar diozu.

Oposizioa ahula izan arren, zer gustatuko litzaizuke egitea oposizioan?

Herritarrendako Laguntza Zerbitzua herritarren beharretara jartzea. UPNk deitzen dituen politika liberalen orde, zerbitzu horiek kudeatzeko politika sozial sendoak jarri nahi ditugu. Iruñean eta Iruñerrian ditugun arazoak benetan larriak dira. Zerbitzu sozial hau behar bezala bideratzea lortuko bagenu pozik geratuko nintzateke.

Bardeetako Tiro poligonoa hizpide. Zapaterok Uxue Barkosekin gaia eztabaidatzea onartu omen du. Jose Antonio Gaiarre Bardeak Batzarreko presidentek (UPN) hala ere, haxe esan du: “NaBaik ez du horretan zerikusirik baina eskatu badute, eztabaida dezatela”.

Egia da. Bardeetako kontratuak bi alde ditu: batetik Defentsa Ministerioak planteatzen duena, Zapatero da erantzule. Bestetik Bardeetako Junta dago, eta hor ez Uxue Barkosek ez

Nafarroako Gobernuak ez Legebiltzarrak ez dugu erabakitzerik. Haien erantzukizuna da. Baina zer esaterik badut. Lehenik eta behin, nire jarrera Nafarroako Legebiltzarrak aho batez martxoan onartu zuena da. NaBairen proposamenaz, parlamentuko talde guztiek orain dagoen akordioa ez luzatzea bozkatu zuten. Esaten ez dena haxe da: posible al da Bardeetarako orain arte izan diren diru laguntzak jasotzea, ordezkari laguntzen bidez? Alegia, akordio hori eteten bada, diru laguntza ere bai? Tranpa hor dago. Bardeetako Juntan hogeita bi *congozante* daude. Hemeretzi Erriberako udalekoak dira, beste hirurak La Olivako Monasterio, Zaraitzu ibarra eta Bardeetako congozanteak dira. Congozanteek erabakitzen dute kontratuaren baiezkota edo ezezkoa. Noski, udal horietako bizilagunei tiro poligonoko kontratuaren orde, diru laguntzak jasotzeko beste aukera batzuk badaudela esaten bazaie, bada agian tiro eremua itxiko da. Bestela... Hor dago Gaierren tranpa. ■

